

Usurbilgo Udala

2018KO URRIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Imanol Urbieto Azkue

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko urriaren 30ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

* 2018/06/26KO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2018ko ekainaren 26ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

* 2018/07/24KO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, 2018ko uztailaren 24ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO IRAILAREN 17TIK URRIAREN 19 (2018/1077-2018/1270).

Alkatetzak 2018ko irailaren 17tik urriaren 19ra bitartean (2018/1077–2018/1270) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2019KO ZERGA ORDENANTZAK BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA.

Alaitz Aizpuruak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Irizpen hau urriaren 11ko Ogasun batzordean aztertu zutela adierazi du. Batzorde horretara Fermin Orue-Echevarria zinegotziak ezin izan zuela bertaratu eta orain modu txukun eta ordenatu batean azaltzen saiatuko dela gaineratu du.

2019rako zerga, prezio eta gainerakoen igoera orokorrean %1,75ekoa izango dela jakinarazi du. Jarraitu du esanez normalean abuztutik abuzturako KPIa hartzen dutela erreferentzia bezala eta nahiz eta orangoan %2,3ko igoera izan zen uste zuten momentuak euste bat eskatzen zuela eta tarteko igoera bat izan behar zuela planteatu beharrekoak.

Igoera orokor horretaz gain salbuespen batzuk badaudela eta geroago zehaztuko dituela adierazi du.

Udal langileen soldatetan %1,75eko igoera izango dela zehaztu du.

Bere horretan mantentzen diren zergak ere badirela esan du. Horien artean aipatu ditu IA Eren zerga, ICIO edo eraikuntza zerga, Gainbalioa, dokumentuak luzatzearen prezioa, Eguneko Arreta zerbitzuaren prezioak, bide eta lurzoru-publikoak erabilpen pribatiboan erabiltzeagatikoko prezioak eta kultur jardueren prezioak.


Bestalde, testuan errata batzuen zuzenketa ere egin dela esan du.

Irizpenean, aldatzen dena bakarrik jaso dela adierazi du.

Zerga fiskalaren egutegiari dagokionez, ez dagoela aldaketarik esan du.

Jarraian, irizpenean jasota dagoen moduan proposatzen diren aldaketen berri eman du.

Aldaketen berri eman ondoren adierazi du batzordean taula bat banatu zutela non argiago ikusten zen zeintzuk diren mantentzen direnak, zeintzuk aldatzen direnak eta azken hauek nola aldatzen diren.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du abstenitu egingo direla. Tasa publikoetan KPIa %2,3 igo dela aipatzen dela dio baina igoera %1,75koa dela eta ez dakitena da ea tasak (estolderia, zabor-bilketa) kubritzen ote diren kobratzen denarekin. Gaineratu du gaur goizean idatzi bat aurkeztu duela hori galdetuz.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio tasetan ezin dela kostatzen dena baina gehiago kobratu. Kubritzen ote denari buruz, hondakinetan, adibidez, poligono industrialetako bilketa bai kubritzen dela, etxez etxekoa defizitarioagoa dela adierazi du, nahiz eta beti pausoak ematen diren defizita zero izateko.

Uraren kasuan, aurtengoa urte berezia izaten ari dela esan du eta hurrengo urteari begira behin uraren egoera normalizatzen denean eta egindako inbertsio guztiak kontutan hartuta, ikusi beharko dela. Hala ere, zehaztu du kasu guztietan helburua ez dela zero kostera iristea, badaudela dio zerbitzu batzuk bestelako interes bat daukatenak.

Beraz, erantzuna ezezkoa izango litzatekeela esan du, halere inoiz ez dutela izan eta helburua ere ez dela hori azpimarratu du.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea igoera horrekin derrigorrezkoak diren zerbitzuak mantentzeko nahikoa den.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio bermatuta dagoena dela tasak kostuen gaintetik ez daudela; zergak eta prezioak beste kontu batzuk direla gaineratu du. Adierazi du gehiago edo gutxiago igo daitezkeela baina beraiek hartu duten erabakia izan dela nahiz eta KPI igoera 2,3koa izan, langileen soldata adina igotzea, komentatzen ari diren krisi berriaren aurrean prebentzio gisa.

Amaitzeko, alkateak irizpenak jasotzen dituen puntuak azaldu ditu.

Batzarkideek, Ogasun Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Ogasun Batzordeak, 2018ko urriaren 11ko ez-ohiko bileran, gehiengoz, Alaitz Aizpuruak, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren (EH Bildu) aldeko botoekin, eta Josune Urkolaren (EAJ) abstentzioarekin, gehiengoz onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENA.- 2019ko Zerga-Ordenantzak behin-behingo onartzea, ondoko aldaketekin:



Usurbilgo Udala


1.- Ondasun Higiezeinei buruzko Zergaren Kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen Ordenantza Fiskala.

Karga tasa:

	%
Industri eta zerbitzu erabilera	0,5701
Beste erabilerak (etxebizitzak, etab,)	0,1888
Landalur ondasun higiezinak	0,8239

3.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Potentzia eta ibilgailu mota	Koefizientea	Kuota
a) Turismoak		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	1,78	32,67
9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	1,75	64,23
12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,13	130,65
14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,32	199,25
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	2,47	272,74
20 zaldi fiskaletik gorakoak	2,66	359,31
b) Autobusak.		
21 plazatik beherakoak	2,35	196,00
21 eta 50 plaza bitartekoak	2,48	294,00
50 plazatik gorakoak	2,64	391,98
c) Kamioiak.		
1.000 kilogramotik beherako karga erabilgarria dutenak	2,32	98,00
1.000 eta 2.999 kilogramo bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,35	196,00
2.999tik gorako eta eta 9.999 kilogramo bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,48	294,00
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	2,64	391,98



Usurbilgo Udala

d) Traktoreak.		
16 zaldi fiskaletik beherakoak	1,85	32,67
16 eta 25 zaldi fiskal bitartekoak	2,35	65,32
25 zaldi fiskaletik gorakoak	2,35	196,00
e)Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak		
1.000 kg.-tik beherako eta 750 kg.-tik gorako karga erabilgarria dutenak	1,85	32,67
1.000 eta 2.999 kilogramo bitarteko karga erabilgarria dutenak	2,35	65,32
2.999 kilogramotik gorako karga erabilgarria dutenak	2,35	196,00
f) Bestelako ibilgailuak		
Ziklomotorrak	2,17	9,79
125 c.c. bitarteko motozikletak	2,17	9,79
125 c.c.-tik gorako eta 250 c.c. bitarteko motozikletak	2,54	19,59
250 c.c.-tik gorako eta 500 c.c. bitarteko motozikletak	2,58	39,85
500 c.c.-tik gorako eta 1.000 c.c. bitarteko motozikletak	2,64	81,65
1.000 c.c.-tik gorako motozikletak	2,70	166,59

4.- Eraikuntza, Instalazioa eta Obrei buruzko Zerga

11. artikulua:

c) %90ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta Udalak onartuta duen Hirigintza Plangintza Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, 1go edo 2gn kategorian, agertzen direnean. Kasu hauetan hobaria zuzenean aplikatuko zaie; izan ere, Hirigintza Plangintza Udal Batzarrak bere garaian onartu zuen.

6.- Zerbitzu Publikoak eskaini eta Jarduerak burutzegatiko Tasak arautzen dituen Ordenantza.

A.- UR HORNIDURA ZERBITZUA

1.- Ur-zerbitzu orokorra

.- **Tarifa finkoa**, kalibrearen arabera, euroak / hiruhilero



Usurbilgo Udala

Kalibrea, mm	Euroak /hiruhilero
20 mm arte	6,75
21 – 40 mm	10,13
40 tik gora mm	20,28

.- **Tarifa aldakorra**, erabilera eta kontsumoaren arabera, euroak / m³

KONTSUMOA	ERABILERA			
	Etzerako	Merkatal Garaje	Industria Ostalaritza	Nekazaritza
0 – 30 m ³	0,47	0,59	0,81	0,23
30,01 – 50 m ³	0,59	0,70	0,95	0,38
50,01 – 100 m ³	0,70	0,83	1,07	0,42
100,01 – 200 m ³	0,83	0,95	1,42	0,47
200,01 m ³ tik gora	1,42	1,42	1,77	0,53
Igerilekuetako kontsumoa m ³			1,80	

2.- Ur-sarera lotzea, lehenengo aldiz alta ematea.


Kalibrea, mm	Tasa
20 mm arte	69,84
21 – 40 mm	138,55
40 – 80 mm	277,09
80 tik gora mm	554,18

B.- ZABOR BILKETA EZABAKETA

1. Zerbitzu orokorra

1.1.- Hondakin bilketaren **tarifa finkoa**.

Erabiltzaile mota	Tarifa € / hiruhileko
1. Etxebizitzak:	
Hiriguneko etxebizitzak	21,30
Landa eremuko etxebizitzak	18,45
. Merkatal establezimenduak:	
Sortzaile txikiak	21,30
Sortzaile txikiak landa eremuan	18,45
Beste establezimenduak:	
OBZ (Oinarrizko bilketa zerbitzua) – organikoa	39,53
OBZ – organikoa landa eremuan	29,64



Usurbilgo Udala


OBZ	105,43
OBZ landa eremuan	68,67
3. Poligonoetako Industriak eta merkatal guneak:	
Industria eta merkatal guneak – organikoa	132,37
Industria eta merkatal guneak	423,31
Industria sortzaile txikiak	23,06
4. Beste zerbitzuak:	
Poligonoetako egur zerbitzua	58,11

1.2.- Tarifa aldakorra, sortutako errefusa kopuruaren arabera eta erabiltzaile motaren arabera. Ondoko taulak jasotzen duena da:

Errefusa unitatearen kostua

<i>Ontziaren Bolumena (litro)</i>	<i>€/Unitatea</i>	<i>€/unitatea < 0,1 kg/l komertzioak</i>	<i>Nahastua bada</i>
0 L (etxebizitza)	1,00	-	3,00
40 L	13,12	2,64	39,72
50 L	13,56	2,71	41,23
120 L	14,50	2,80	44,50
240 L	17,43	3,49	54,20
360 L	21,83	4,39	68,40
1000 L	45,37	9,09	144,09

2. Zerbitzu bereziak



Usurbilgo Udala

2.1.-Bilketa berezien tarifak

Zerbitzua	Tarifa
Tamaina handiko hondakinen bilketa, zerbitzuko	13,85

2.2.-Edukiontzia

Edukiontzi bolumena (litro)	Kostua (€)
40 l	32,00
50 l	43,00
120 l	53,00
240 l	58,00
360 l	74,00
1000 l	221,00


C.- ESTOLDERIA ZERBITZUA.

1.- Udal saneamenduko sarera isurtzeko baimenaren tasa:

Etxebizitzak eta garaje/trastelekuak	63,00
Merkatal establezimenduak	126,00
Industriak eta obra sustatzaileak	
1,5 pulgadetako hodia	314,00
2,5 pulgadetako hodia	441,00
3 pulgada edo gehiago	629,00

E.- HILETA ZERBITZUAK

		%20	%40	%60	%80	%90
	Gorpu 1	Gorpu 2	Gorpu 3	Gorpu 4	Gorpu 5	Gorpu 6
Ehorzketak lurrazpian edo bakarreko panteoian	339,80	611,70	815,60	951,60	1.019,50	1.053,50
Ehorzketak nitxoan	310,30	558,60	744,80	868,90	931,00	962,00
Ehorzketa errautsen kolunbarioan	103,80	186,80	249,10	290,60	311,40	321,70
Ehorzketa errautsen parkean	103,80	186,80	249,10	290,60	311,40	321,70
Lurrazpiko edo bakarreko panteoiko hobitik ateratzea	148,60	267,40	356,50	416,00	445,70	460,50
Nitxoko hobitik ateratzea	122,10	219,80	293,00	341,90	366,30	378,50
Kolunbarioko hobitik ateratzea	81,40	146,50	195,40	227,90	244,20	252,30



Usurbilgo Udala

Panteoia oso bat hobitik ateratzea	458,00
Panteoien kontzesioa, bakoitza 50 urte	2.635,00
Errauts kolunbarioaren kontzesioa, bakoitzeko 50 urteko	885,00
Tanatorio zerbitzuaren erabilera eguneko	117,00

F.- LURZORUAREN LEGEKO 207ARTIKULUKO HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEKO JARDUERA.

Hirigintzako lizentziak	47,00
Terreno zatiketak, onibarra berri bakoitza	74,00
Lehen erabilera baimenak	
Etxebixitzak	25,00
Lokal ez komertzialak	19,00
Lokal komertzialak eta industrialak, m ²	0,59
Nekazal izaerako eraikinak, m ²	0,31

G.- JARDUERA LIZENTZIAK EMATEAGATIK ETA JARDUERAREN EDO INSTALAZIOAREN FUNTZIONAMENDUAREN EGIAZTATZE-IKUSKARITZA EGITEAGATIK

1.- Aldez aurretiko baimena behar duten jarduerak:

A.-Jarduera baimenak edo lizentziak ematea:	
Industriak eta tailerrak:	
250 m2-raino	1.251,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Ostalaritza eta aisialdiko jarduerak:	
250 m2-raino	621,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Nekazal jarduerak:	
250 m2-raino	310,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Beste jarduera batzuk:	
250 m2-raino	1.070,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Tasa bereziak:	
Jolas aretoak, diskotekak eta dantzalekuak Bingoak eta kasinoak, kategoria bereziko edaritegiak	4.329,00




Usurbilgo Udala

Gasolindegia, gasolina, lubrikatzaile eta olioien salmenta	867,00
Telekomunikazio azpiegiturak ezartzea	2.141,00

B.-Jarduera lizentzia eman ondoren, jardueraren edo instalazioaren funtzionamenduaren egiaztatze-ikuskaritza:	
Industriak eta tailerrak:	
250 m2-raino	621,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Ostalaritza eta aisialdiko jarduerak:	
250 m2-raino	310,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Nekazal jarduerak:	
250 m2-raino	156,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Beste jarduera batzuk:	
250 m2-raino	536,00
250 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	4,00
Tasa bereziak:	
Jolas aretoak, diskotekak eta dantzalekuak Bingoak eta kasinoak, kategoria bereziko edaritegiak	2.165,00
Gasolindegia, gasolina, lubrikatzaile eta olioien salmenta	434,00
Telekomunikazio azpiegiturak ezartzea	1.070,00

2.- Aldez aurretiko komunikazioa eskatzen duten jarduerak:

A.-Jardueraren edo instalazioaren funtzionamenduaren egiaztatze-ikuskaritza:	
Industriak eta tailerrak:	
100 m2-raino	273,00
100 m2-tik 300 m2ra	546,00
300 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Ostalaritza eta aisialdiko jarduerak:	
100 m2-raino	236,00
100 m2-tik 300 m2ra	472,00
300 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Nekazal jarduerak:	
100 m2-raino	54,00



Usurbilgo Udala

100 m2-tik 300 m2ra	108,00
300 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Beste jarduera batzuk:	
100 m2-raino	236,00
100 m2-tik 300 m2ra	472,00
300 m2-tik gora, 10 m2 bakoitzeko	6,00
Titularitate aldaketetan jarduerak jarraitzen duenean	53,00

G.2.- HIRIGINTZA ESPEDIENTEAK

Hirigintza kontsultak	37,00
Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen espedienteak izapidetzea	76,00
Partikularrek eskatu eta Udalak egindako Arau Subsidiarioen aldaketak, planoen aldaketak berekin badituzte, sortzen dituzten gastuen %80 partikularren bizkar joango dira. Aldaketa ez balitz onartuko udal arrazoiengatik, gastu guztiak Udalaren bizkar izango dira.	

H.- PUBLIZITATE LIZENTZIEN LUZATZE ZERBITZUA.

Errotuluen erakusketagatik	€/m ² /urteko
Argirik gabeko errotulu edo kartelak	32,00
Argidun errotulu edo kartelak	60,00
Pantailetan proiektatutako iragarkiak	60,00

I.- TAXI LIZENTZIEN LUZATZE ZERBITZUA.

Auto -taxien lehen lizentzia	415,00
Eman diren eta indarrean dauden lizentzien eskualdaketak	682,00
Ibilgailuen ordezkapena	30,00
Lizentzien errebisioak	14,00

J.- ARETOEN ERABILERA TARIFAK

	€ / orduko	€ / eguneko
Sutegi Aretoa		
1.- Sutegi Auditorioa		



Usurbilgo Udala

Teknikari eta elementu teknikoekin	64,00	428,00
Teknikari eta elementu teknikorik gabe	33,00	216,00
2.- Sutegi erakusketa gela	16,00	108,00
3.- Garbiketa		
Aretoa		44,00
Kamerinoak edo erakusketa gela		21,00
Aretoa eta kamerinoak		64,00
Artzabal Aretoa		
Teknikariarekin	48,00	343,00
Teknikaririk gabe (bertako ekipamendua erabili daiteke)	13,00	108,00
Garbiketa		33,00
Potxoenea kultur etxea		
1.- Urdintxo Aretoa		
Teknikariarekin	48,00	343,00
Teknikaririk gabe (bertako ekipamendua erabili daiteke)	16,00	108,00
2.- Bilera gela 1/2 eta sotoa	13,00	108,00
3.- Garbiketa		33,00

7.- Udal jabetza erabiltzeagatik Tasak arautzen dituen Ordenantza.

A.- HESIAK, ALDAMIOAK, ZUTABE ETA EUSTAGAIK

	€ m ² edo zatiko eta eguneko
Hesiekin itxitura	0,0943
Aldamioa, azpitik pasabidea utzi gabe	0,1677
Aldamioa, azpitik pasabidea utzi	0,1258
Edukiontzia	4,1921
Txabolak	8,3842

B.- IBILGAILUAK ESPALOIETAN ZEHAR FINKEN BARRUALDERA SARTZEA ETA HORIEN APARKAMENDU ERRESERBA BIDE PUBLIKOAN.

Baimendutako ibi iraunkorrarekin	
Garajeak, ibilgailu eta urteko	6,75
Zoru publikoa erabiltzeagatik, merkatalgune eta industrialdetan, metro lineal eta urteko	74,34



Usurbilgo Udala

Ibi iraunkorrik gabe	
Garajeak, ibilgailu eta urteko	4,51
Zoru publikoa erabiltzeagatik, merkatalgune eta industrialdetan, metro lineal eta urteko	49,56
Ibi iraunkorreko baimena €/m edo zatiko	15,00

C.- FERIA ETA HERRIKO JAIETAN POSTUAK.

Taberna, kafetegi eta antzerakoetan	2,25
Txosna eta jaietako salmenta edo jolas postuak	1,68
Zirkoak	0,23

D.- UDAL BIDE PUBLIKOEN LUR, LUR AZPI EDO LUR GAINAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA

Terrazak	2,25
Kutxazain automatikoak, urteko	328,50
Salmenta makinak (bideoak, tabakoa, edariak...), urteko	109,14
Beste erabilerak	1,53

F.- LANDA BIDEEN ERABILERA.

Bide mota	€/km/estereo	Fidantza €/km
Asfalto edo zementua	0,38	2.401,03
Gainerakoak	0,74	4.803,10

G.- ASTEROKO AZOKA EGITEKO PLAZAREN ERABILPEN PRIBATUA.

Metro karratuko edo zatiko eta eguneko	1,61
--	------

H.- IBILGAILUAK KALETIK KENDU ETA BILTEGIAN JASOTZEA.

Ibilgailu mota	€
Bizikletak eta ziklomotorrak	33,00
Motozikletak, trizikloak, motokarroak...	55,00
Turismoak eta 3.499kg bitarteko tarakoak	110,00
Kamioi, traktore, atoi, autobus eta 3.500kg baino gehiagoko tarakoak	187,00



Usurbilgo Udala

Zepoa jarri eta ibilgetzea	55,00
----------------------------	-------

Kendutako ibilgailuak gorde eta zaintzea	€/eguneko
Bizikletak eta ziklomotoreak	7,00
Motozikletak, trizikloak, motokarroak...	7,00
Turismoak eta 3.499kg bitarteko tarakoak	27,00
Kamioi, traktore, atoi, autobus eta 3.500kg baino gehiagoko tarakoak	44,00

I.- UDAL BARATZEN ERABILERA.

30 m ² ko baratza	45,28
60 m ² ko baratza	90,55

8.- Zerbitzuak eskaini edo Udal Jarduerak burutzeagatiko Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza.

A.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA


Kontuan hartuko direnak:

- 2006ko abuztuaren 24ean onartutako araudia indarrean jarri baino lehen zerbitzua jasotzen ari ziren erabiltzaileei indarrean zegoen arautegia aplikatuko zaio.
- 2006ko abuztuaren 24ko datan arautegi berria onartu zen; onartuz gero, zerbitzua jasotzen duten erabiltzaileak mendekotasuna duten erabiltzaileei eta autonomoak direnei tarifa berberak aplikatuko zaizkie.
- 2018ko maiatzaren 29an Usurbilgo Udalbatzak onartutako etxeko laguntza arautzen duen Udal Arautegiaren aldaketa onartu zen eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udalaren arteko hitzarmena sinatu.
- 2018ko Finkatutako prezioak, Aldundiarekin sinatutako hitzarmenean adostuak dira eta Beterri-Buruntza osatzen duten herri guztietan ere bateratuak. Indarrean dauden abuztuaren 2an GAO n argitaratu zenetik hauek dira:

	Gutxienezko kopurua orduko	Gehienezko kopurua orduko
Laneguneko prezioa	0,23€	15€
Jaieguneko prezioa	0,27€	18€

- Ekarpenen koadroa

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:



Usurbilgo Udala

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

LAGS sarrerak	Ekarpena
LAGSren \leq %75	%1,5
>%75-78	%4
>%78-81	%8
>%81-94	%15
>%94-110	%24
>%110-125	%35
>%125-140	%48
>%140-155	%61
>%155-170	%74
>%170-190	%87
LAGSren >%190	%100

-Ondarea zenbatzea

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

Kide kopurua	Gehienezko ondarea
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

- Libreki erabiltzeko zenbatekoa


Egin beharreko ekarpen ekonomikoa ezin izango da libreki erabiltzeko zenbatekoa baino handiagoa.

B. UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK

A) OIARDO KIROLDEGIA

SARRERAK

19 urte edo gehiago	6,20
10 sarrerako bonoa, 19 urte edo gehiago	49,60
18 urte edo gutxiago	3,90
10 sarrerako bonoa, 18 urte edo gutxiago	31,20
Erreserba sarrera	2,00



Usurbilgo Udala

Dutxa	2,00
-------	------

-. Abonoa pertsonala da, eta behin ordainduta, baja emateak ez du suposatuko ordaindutakoa itzuliko denik. Abonoak urtero automatikoki luzatuko dira, abonatuak baja eskatzen ez duen bitartean. Bajak, abenduaren 20a aurretik eskatu beharko dira kiroldegiko harreran eta baja orria bete eta sinatu beharko da.


ABONUAK

EPEA	Familiarra	19 urte edo gehiago	18 urte edo gutxiago, pentsioduna, erretiratu. eta 25 urtez beherako ikasleak
urt. – abe., ots. - abe.	249,00	164,00	103,00
mar. - abe.	233,00	153,00	96,00
api. – abe.	212,00	139,00	88,00
mai. – abe.	191,00	126,00	79,00
eka. – abe.	170,00	112,00	70,00
urt. – eka., uzt.- abe.	162,00	107,00	67,00
ots. – eka., abu. – abe.	141,00	93,00	58,00
mar. – eka., ira. – abe.	121,00	79,00	50,00
api. – eka., urr. - abe.	100,00	66,00	41,00
mai. – eka., aza. - abe.	79,00	52,00	33,00
eka. – eka., abe. – abe. edo hilabete naturala	58,00	38,00	24,00

OIARDOKO ERRESERBAK

1.

Squash (60´)	5,40
10 saioko bonua	43,20
Sauna	3,80
10 saioko bonua	30,40
Pista kirolanitza (60´)	22,30
Argia	4,55
Pista kirolanitza (60´) 1/3	8,60
Argia	1,70
Pista kirolanitzean gomak jarri eta kentzea	314,45
Kanpoko zelaia	16,65
Argia	4,40
Gela erabilanitza	8,60
Tatamia	10,75



Usurbilgo Udala

Alokairua duten erabiltzaileak (abonatuak ez direnak) erreserba sarera ordainduko dute. Sarrera honek aldagelak erabiltzeko aukera ematen du.

Erabiltzaileek ondorengo eremuak doan erabili ahal izango dituzte libre badaude: squash, Oiardoko kanpoko futbol zelaia eta pista. Argia behar izanez gero, argiari dagokion tarifa ordaindu beharko da.

OIARDOKO ZERBITZUAK

Giltza puskatzea, galtzea	5,40
Karneta puskatzea, galtzea	3,70
Txanoa	2,00

I

B) UDALAREN BESTE KIROL INSTALAZIOAK

HARANE FUTBOL ZELAIA

Ondoren gehitzen den laukietan adierazten diren prezioak €/ orduko izango dira.

	Abonodunak
Zelai osoa (60´)	50,35
Argiarekin	63,20
Zelai erdia (60´)	27,75
Argiarekin	34,10

PILOTALEKUAK

Pilotalekua (60´)	13,75
Argiarentzako fitxa	4,15

C.- HAUR ESKOLAREN HEZKUNTZA ZERBITZUA

1.- Usurbilen erroldatutako guraso eta haurrak:

	€/hilean
Egun osoko zerbitzua	278,15
Egun osoko zerbitzua eta merienda	300,74
Egun erdiko zerbitzua	112,64
Egun erdiko zerbitzua gehi janaria	214,01
Arratsaldeko egun erdia eta merienda	92,36
Txikiak (0-6 hilabete) egun erdia eta biberioia	116,03
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa eta biberioia	197,18
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa, biberioia eta merienda	221,89

2.- Usurbildik kanpo erroldatutako guraso eta haurrak:

	€/hilean
Egun osoko zerbitzua	346,38
Egun osoko zerbitzua eta merienda	375,94
Egun erdiko zerbitzua	140,80
Egun erdiko zerbitzua gehi janaria	267,52
Arratsaldeko egun erdia eta merienda	150,93



Usurbilgo Udala

Txikiak (0-6 hilabete) egun erdia eta biberioa	145,02
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa eta biberioa	247,80
Txikiak (0-6 hilabete) egun osoa, biberioa eta merienda	277,37

D.- EGUNEKO ZENTROAREN ZERBITZUA

Mendekotasuna duten erabiltzaileak:

	Gutxienezko kopurua eguneko	Gehienezko kopurua eguneko
Eguneko prezioa	8,31€	16,50€

*Erabiltzaileak ordaindu beharko du gutxienezko eta gehienezko kuoten artean dagokionn zenbatekoa, bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera kalkulatu dena. Baldintza ekonomikoak urtero eguneratuko dira 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 dekretuan aurreikusitakoari jarraituz.

Autonomoak diren erabiltzaileak:

	Gutxienezko kopurua eguneko	Gehienezko kopurua eguneko
Eguneko prezioa	7,85€	42,84€

*Erabiltzaileak ordaindu beharko du gutxienezko eta gehienezko kuoten artean dagokionn zenbatekoa, bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera kalkulatu dena. Gutxienezko kopurua, Aldundiak finkatutako prezioa da. Baldintza ekonomikoak urtero eguneratuko dira 2015eko ekainaren 2ko 15/2015 dekretuan aurreikusitakoari jarraituz, gehienezko kopurua, berriz, Udalak finkatutakoa da

E.- UDAL LOREZAINZTA ZERBITZUA

Lorezaintza gunea	20,35 zentimo/m ²
Lorezaintza setoa	2,09 euro/m linealeko.


F.- EDALONTZI BERRERABILGARRIEN ZERBITZUA

Edalontzia	€/unitatea
330ml	0,35
500ml	0,41
1000ml	0,64

G.-UDAL MATERIALA ALOKAIKURUA

Usurbilgo Udaleko mahai eta aulkiak kanpoko talde zein entitateek erabiltzeko eskatzen dituztenean, alokairuaren eta birjartzearen prezioak.

	Alokairua €/erabilerako	Birjartpena €
--	-------------------------	---------------



Usurbilgo Udala

Aulkiak	0,30	10,00
Mahaiak	3,00	51,00

I.- UDAJOLAS UDALEKU IREKIAK

Kuota arrunta	84,00 €
Famili ugaria	68,00 €

* Doan: Familiaren egoera kontutan izanda, Gizarte Ongizate Sailak hala adierazten duenean eta harrera familietara datozen haurren kasuan.

10.- Zuzenbide publikoko udal zergen eta beste diru sarrereren kudeaketaren eta bilketaren gaineko ordenantza nagusia.

27. artikulua: Egutegi fiskala.



Usurbilgo Udala

2019 URTEKO EGUTEGI FISKALA

ZERGA KONTZEPTUA

ORDAIN EPEA

- | | |
|--|--------------------------------|
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa – aurreko urteko 4. hiruhilekoa: | Urtarrilaren 2tik 31ra. |
| - Ura ,estolderia eta hondakinak – aurreko urteko 4. hiruhilekoa: | Otsailak 1etik martxoak 15era. |
| - Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga: | Martxoak 1etik apirilak 16ra. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 1. hiruhilekoa: | Apirilak 1tik 30era. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 1. hiruhilekoa: | Maiatzak 2tik ekainak 17ra. |
| - Ondasun higiezinaren gaineko zerga: | Maiatzak 15tik uztailak 1era. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 2. hiruhilekoa: | Uztailak 1tik abuztuak 1era |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 2. hiruhilekoa: | Abuztuak 1etik irailak 16ra. |
| - Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (badoa): | Irailak 2tik 30era . |
| - Ekonomi jarduera gaineko zerga: | Urriak 1etik azaroak 11ra. |
| - Asteroko merkatuaren erabilpen tasa - urteko 3. hiruhilekoa: | Urriak 1etik 31ra. |
| - Ura, estolderia eta hondakinak - urteko 3. hiruhilekoa: | Azaroak 4tik abenduak 16ra. |
| - Bide publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasa (beladoreak, kutxazain automatikoak...): | Azaroaren 4tik abenduak 1era. |
| - Emakida administratiboak (atxega jauregia, udal baratzak...): | Azaroaren 4tik abenduak 1era. |

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.



Usurbilgo Udala

LAUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin-behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisolli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- USURBILGO HERRI BARRUKO TAXIEN 2019KO TARIFEN ONESPENA.

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu, adieraziz Usurbil Beterri Buruntzako batzorde bereziko kide dela eta urtero bezala G.Taxi Gipuzkoako Taxi-Elkargoak eta Agitaxek 2019rako proposamenak aurkeztu dituztela. Lehenengoak %2,5eko igoera eta bigarrenak %2,3koa aurkeztu dutela jakinarazi du. Sei udalerriak batzarrean bilduta, aho batez, 2019rako %2,3ko igoera aplikatzea erabaki zutela adierazi du.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2018-0478

Aurrekariak

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxi-legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, *(Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua).*

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbideetan.



Usurbilgo Udala

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arrazoizko mozkinak emateko eta bestetik, zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerrri horietan, tarifaren berrikuspena egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.

Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontutan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

Ikusirik

2017ko abenduaren 15ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskadiko Prezioen Batzordearen erabakia. Bertan, 2018. urterako USURBILGO udalak aurkeztu zituen Auto Taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoaren salneurriak onartu ziren. Hauek izan ziren 2018 urterako onarturiko eta oraindik indarrean dauden tarifak:

2018ko HIRI BARRUKO TARIFA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,2019	1,1059	21,2222	6,2004	1,7715	33,3527

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

*Lanegunetan 07:00etatik 22:00 arte.

Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai **larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Taxilarien erosteko ahalmena mantentzearen alde eta udalerrriak taxi tarifa jakinak urte naturalaren hasieran jar ditzan, **2019. urterako USURBILGO TAXI TARIFA BERRIEN ONARTZE ESKAERA aurkeztu dute Gipuzkoako taxilarien bi elkarteek.**

Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeko Batzordeak, 2018ko irailaren 28an egindako bileran, 2019. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak onartu zituen, indarrean dauden tarifei %2,3 erantsiz. Igoera horren ondorioz, 2019. urteko tarifak hauek izatea proposatzen du:

2019ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1 *			Tarifa 2 **		
Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko	Gutxieneko tarifa	Egindako km	Itxaronaldia, orduko
5,3216	1,1313	21,7104	6,3430	1,8123	34,1198

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.



Usurbilgo Udala

**Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.*

Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte **bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Kontutan harturik

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diotenez, Udalari dagokio tarifak onartzea.

Gauzak horrela, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak, 2018ko urriaren 11ean egindako bilkuran, aho batez, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar, Carlos Perez eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Usurbilgo herri barruko garraiorako 2019. urterako proposatzen diren aipatutako auto-taxi tarifak onartzea.

BIGARREN: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari onespeneraren erabakia bidaltzea behin betiko onspena eman dezan.

HIRUGARREN: Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei, G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkargoari, AGITAXi, Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gasteizko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko arduradunari bidaltzea 2018ko azaroak 16a baino lehen.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- GALDERA-ESKAERAK.

Fermin Orue-Echevarriak bi galdera dituela adierazi du.

Batetik, kontu-hartzailearen inguruan berririk badagoen galdetu du.

Bigarrenik, zorionez Udalari diru gehiago etorriko zaiola Foru Aldunditik eta galdetu du ea pentsatu duten zertan erabiliko den.



Usurbilgo Udala

Kontu-hartzailearen gaia dela-eta, alkateak erantzun dio denek dakiten moduan Karmele Lizaso Zarautza joan dela kontu-hartzaile moduan eta hemen hutsik geratu den postu hori betetzeko prozedura bat erabiltzea eskatzen duela. Lehen momentutik prozedura hori martxan jarri zutela adierazi du eta Foru Aldundiari jakinarazi zitzaiola.

Lehenengo pausoa dela dio lanpostu hori betetzeko gaituta daudenei abisatzea eta hori eginda, ez duela inork hartu esan du. Ondoren, kontu-hartzaile lanpostuak betetzeko sortu diren IVAPeko lan-poltsetara jo dela eta prozesu hau oraindik ez dela amaitu esan du, epea asteartean amaitzen baita. Hemen norbait aurkeztuko balitz, Karmelek utzitako hutsunea betetzeko aukera izango lukeela eta, bestela, beste formula bat pentsatu beharko litzatekeela gaineratu du.

Bestalde, jakinarazi du momentu honetan Foru Aldundiarekin egunero ari direla hitz egiten ikusteko prozesua nola doan eta ze aukera dauden. Aukerak badaudela dio baina ezin dutela ezer aurreratu ikusi arte lan-poltsetako prozesu hori nola amaitzen den.

Beraz, asteartean jakingo dela adierazi du norbait aurkeztu ote den lanposturako edo hirugarren bide bat hartu behar ote den.

Bigarren galderari buruz adierazi du jakinarazi zaiela Foru Funtsetik diru gehiago etorriko dela eta dudarik gabe hori albiste ona dela. Diru hori nola erabili erabakitzeke une egokia izan daitezkeela dio 2019ko aurrekontuak eta batzordeetan hitz egingo dela horri buruz. Hala ere, kontua ez dela korrika eta presaka erabakitzea, ondo pentsatu beharrekoa dela eta denen artean erabakiko dutela adierazi du.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du alkateak esan duen bezala berri ona dela, baina kontutan hartu behar dela kontu-hartzailerik gabe egoera delikatuak daudela eta bere ustez egin behar duten lehenengo ariketa da 2018ko itxiera prebisio bat egin. Normalean ondo joaten dela dio baina gorabeherak egon daitezkeela eta esan bezala lehendabizi itxiera hori ahalik eta txukunen egin beharko litzatekeela uste du. Baldin eta prebisio horrek ondo ematen badu, ikusi beharko da edo momentuan erabaki ze egin daitekeen diru horrekin edo itxierara itxaron eta orduan erabaki.

Aurrera eramateko egitasmoak badaudela dio, baina baita zorrak ere. Hori horrela izanda, diru hori ahalik eta ondoen enplegatzen saiatuko direla esan du.

Fermin Orue-Echevarriak galdetu du ea aurtengo aurrekontuetan edo 2019koetan egin behar den.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio bietan egin daitezkeela. Aurten kreditu aldaketa bat egin daitezkeela zehaztu du edo, bestela, aurtengo aurrekontuan sartu, martxoan egiten den



Usurbilgo Udala

itxierari itxaron eta remanentea handitu daitekeela. Aukera ezberdinak daudela esan du.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.